



# EZ DENA ERE BADA

Karlos Gorrindo Etxeandia

Desclée De Brouwer





## Baga

**I**kastolaldiko azken konbibentzia-txangoa egitekoak ziren, eta ez zekien zergatik, baina goiz hartan urduri eta triste xamar altxatu zen Usue ohetik. Bukatu nahi ez zuen ibilbide baten amaiera zela sentitu zuen: ikastolako azken urtea, azken konbibentzia-bidaia..., eta amaiera haiek zimikoa egiten zioten bihotzean. Aurreko gauean prestatutako arropa motxilari azken begiratua egin zion, lau egun haietarako behar zituena gauza guztiak bertan ote zeuden frogatzearren: barruko arropak, praka pare bat, hiru niki, txandala, jertsei arin bat eta potoloago beste bat..., gogaikarria zen. Lau egunerako zihoa zen eta bazirudien hamabostaldia egin behar zutela jaioterritik batek jakin zenbat mila kilometrorra zegoen herri galdu batean. Haatik, ordu bi inguruko luzera zuen bidaia egingo zuten,



Euskal Herritik atera gabe, inoiz egon gabeko herrira joango baziren ere. Zugarramurdira zihoazen. Historia handiko herri txikia, inondik ere, argudiatu zien Ainara andereñoak, konbi-bentzia-txangorako azken zertzeladak gelara azaltzera joan zen arratsaldean.

—Herri mitikoa da, misterioz betea eta edozeinen jakin-mina piztuko lukeen xarma berezia duen herri xorgindua. Eta mugan dago, Euskal Herri zatituan zatiagotzen duen lurralde mugarrrian.

—Ez ahaztu hortzaginetako eskubila eta orea –gogorarazi zion amak arropak eta gainontze-koak motxilan sartzen laguntzen zion bitartean.

Amak lagundu egin behar izan zion zeregin nekagarri hartan, alaba purrustadaka hasi behar zuela ikusterako.

—Benetan Usue, izatekoa zara, gero!

—Beno ama, ez zaitez ipurterretu, banoa eta; ez dut uste ezer ahaztu dudarik –esan zuen motxila barrukoari azken begiratua egiteaz batera

—Zurekin joango naiz ikastolara, nahi baduzu.

Alde samurrena erakusten zionean, jateko moduko pastel gozoa zen ama. Baina ez zen beti



horrelakoa izaten. Are eta gutxiago aitak etxetik alde egin zuenetik. Amari aldartea eta aiurria aldatu egin zitzaizkion erro-errotik, aitak hamar urte gazteagoa zen neska gazte batez burua galdu eta etxetik aldegitia erabaki zuenean. Alaia eta irekia zena, serio eta barnerakoi bilakatu zen. Garrastu egin zitzaion portaera eta etxean agindua baino ez zegoen. Usuek usu jasan behar izan zituen amaren ateraldi petralak. Zure aita bezalakoa zara, esaten zionean, Usuek ez zekien zer esan nahi zuen, nahiz eta gauza onik ez zela sumatu. Egiten zuena egiten zuela, ama ez zen inoiz konforme geratzen. Bateko logela zikina, besteko egin gabeko harrikoa edo neba txikiari arretarik ez ematea nahikoa zen ama sutu eta bere onetik ateratzeko. Gero, segundugarrenera, damutu egiten zen erreakzioaz, atzera egiten zuen, eta inoizkorik samurren portatzen zen, txarto esana zuzendu nahian. Usuek behin edo izan zuen amarenetik ospa egiteko gogo bizia, amarekin izandako eztabaida garratzaren ondorioz.

—Banoa aitarenera —amari halako mehatxua egiteak zenbaterainoko samina sortzen zion jakinda.



—Zoaz —erantzuten zion—. Baina esku hutsik joan beharko duzu. Esku hutsik eta biluzik, aldean daramatzazun kuleroak ere nireak dira eta. Nik ez dizut oztoporik jarriko zure nahia bete dadin. Baina etxe honetan zauden bitartean, nik esana egin beharko duzu.

Mehatxu hutsalaren ondoko benetako mehatxua zen amarena, bere alaba etxetik joan zedin nahi ez bazuen ere. Burua makurtu eta buztana hankartean joaten zen Usue logelara, bataila txiki haietan ama beti irabazle ateratzen zela jakinda.

Denboraren joanak, halere, zauri guztiak orbaindu zizkion, baita bihotzarenak ere. Eta garai bateko zena izaten hasi zen berriro. Baina gaseosa bezalakoa izateari utzi gabe: bat-bateko purrustada izaten jarraitzen zuen, baina ezti bilakatzen zen luze gabe. Eta Usuek berak ere ezaugarri haiek zituen, onerako edo kalterako. Ama bezalakoa zen nortasun eta aiurriz, amak bestelakorik uste zuen arren.

—Ez ama, nahiago dut lagunekin joan, Elene eta Astrid zain izango ditut honezkero.

—Xabierrekin joan behar dut, dena den.

—Ez ama, eskerrik asko, emadazu musutxoa, banoa eta.